

Euskal kantuaren intonazio berezia: Zuberoa, Baxenabarre eta Lapurdiko lekukoak

Intonazio neutro edo erdibidekoa Iparraldeko herri-kantaera tradizionalen

Jean-Baptiste eta Antoine Suhas (Arrangoitze, Lapurdi):
“Lili bat ikusi dut” (1916-03-19).



Lehen Mundu gerlako euskal presoek grabaketak (1916-1917)

[Prusiako Komisio fonografikoaren artxiboak \(Alemania\)](#)

www.mintzoak.eus

Beste kasu konparagarri batzuk... gauza bera izan gabe

Folklorean, munduan zehar:

- Suitzako eskualde batzuetako *yodela* (Appenzell eta Muotathal); hainbat antzeko ezaugarri ditu.
- Norvegiar (Österdal eskualdea).
- Espainia: Salamanca, León, Burgos (Miguel Manzano Alonsok).
- Galizia.
- Okzitanian, Ossau bailara (Aubestin Cauhapè).
- Kultura musikal anglo-amerikarra.
- Estatu Batuak (*blue note*).
- Ipar Amerikako indigenak.

Eliz musikan, Europan:

- Andavíaseko (Zamora, Espainia) “Misa Solemne”.
- Korsikako “Messa Corsa”k.

Iparaldeko herri-kantaera tradizionalaren **ezaugarri** nagusiak

- Herrikoia: ez akademikoa, **teorizatorik gabea**. **Praktikatuz** ikasten da
- **Ahozko** transmisiozkoa
- Kolektiboa: **komunitatea** da bere kontserbazio eta transmisioaren arduraduna
- Komunitatearen **barne-erabilerakoa**
- Tradizionala: **belaualdi artean** transmititzeko nahia

Intonazio berezia... →

Intonazio neutro edo erdibidekoa

Intonazio neutro edo erdibidekoa

1. Zer da?

Erraz ulertzeko: pianoaren tekletako notez gain, horien artean dauden “nota” batzuk ere erabiltzen dituen kantaera

→ Bitarte “neutroak”
sortzen dira:
“erdibidean” daude





Erramun Negelua (Gamarte, Baxenabarre): “Lurraren pean” (2010)



Antoine Suhasez gero, 100 urte pasa dira. Antzeko intonazioa

Bitarte neutroak: adibide orokor bat

Adibidez: **La - Sol n - La**



(Gauza bera: **Re - Do n - Re**, eta abar)

Adituen lehenagoko aipamenak, euskal kantuan

- Julie Adrienne **Carricaburu** (Mme. de la Villéhélio) (1869)
- Charles **Colin** (1912)
- Aita **Donostia** (1916, 1931...). **M/m** indefinizioa



Xalbador (Urepele, Baxenabarre), “Hilik den emaztearen soinekoari” (grab.: 1974).
1965eko Txapelketakoa

- Rodney **Gallop** (1927, 1928...)
 - Aita F. **Madina** (1943)
 - Gabriel **Lertxundi** (1946)
 - Jean **Ithurriague** (1947)
 - Arana **Martija** (1976)
 - Pierre **Laffite** (1977). Iruñako gaitarien lanean (P. Caubet)
 - Juanito **Dorronsor** (1994). Bertsolariak.
 - J. I. **Ansorena** (1995). Iztueta-Albeniz bilduma (Gipuzkoa)
 - Marie **Hirigoyen-Bidart** (25-09-2012an bere doktore tesian)
- Euskal Herritik kanpora ere badira antzeko kasuak.

Ezaugarri orokor batzuk

- Normalki, 3/4T “inguruko” bitartea (nahikoa subjektiboa: guretzat, oso zaila da zehazten).
- Gehienetan bitarte beherakorra.
- Gehienetan antzerako pasarte melodikoetan (ohikoenak, 4 motakoak).
- Askotan, doinu jakin batzuetan.
- Gehienetan minor itxurako doinuetan.

Kantaera honen egitura

- Gradu “**finkoak**” (egonkorrak , “zutabeak”) eta “**mugikorrak**” daude . Batez ere, mugikorretan gertatzen dira soinu erdibidekoak (=neutroak), eta aldaera modalak ere bai.
- Pasarte berean, gerta daitezke **hiru aukerak**: naturala, aldatua, neutroa: ez dute beti berdin kantatzen.

Gainera:

- “Modu musikalak” ez dira argi azaltzen → modalitate “nahasia”.
- Pasarte askok oso modalitate aberatsa, aldaera modal ugariekin.

Nabariak diren adibide batzuk

a: nabaria
a: oso nabaria

Lapurdi

Antoine Suhas (Arrangoitze, Lapurdi): “Lili bat ikusi dut” (1916)

...lorea ez du **galtzen** udan ez neguan...



Mattin (Ahetze, Lapurdi): “Galerianoaren kantua” (1977)

...Plumagaineko premu, orok dakitena...



Xanpun (Senpere, Lapurdi): 1982ko bertso Txapelketaren agurra

Sensiblea neutro

...orroitu **gaiten** garela denak
haitz trunko beraren ezpal...



G. Bergara *Txistu* (Senpere, Lapurdi): “Eper zango gorria” (1999-2009)

...nun etzaitudan ikusten...



Erramun Mailluquet (Hazparne, Lapurdi): “Xinaurria” (ca. 1960)

Baxenabarre

Erramun Negelua (Gamarte, Baxenabarre): “Pena dut eta dolore” (Aitak et’ amak)(2010)

Erdibideko **oso luzea**: ... *jakin gabe; aitak et’ amak
xagrinetan eman naute.*



Xalbador (Urepele, Baxenabarre): “Lazkao Txikiren malkoei” (1976)

Erdibideko **luzeak**: ...*gure Lazkao Txiki maitatutakoak...*



Xalbador (Urepele, Baxenabarre): “Mendiak bete belarrez” (1976)

Gorakorra: ...*orai hemen nagozu sabeletik minez.*



Pierra Erramuzpe (Aldude, Baxenabarre): “Hala baita” (2014)

Apainduraren barnean: ...*maite bat ezin konbentzitud
nik pairatzen dutana.*



Apainduraren barnean: ...-ratzen



Hala baita dolu egingarri (1. bertsoa)



Erdibideko **oso luzea** (eta sensiblea, neutro): ...*ez duzu ja bada izan nahi...*



Xalbador (Urepele, Baxenabarre): “Lazkao Txikiren malkoei” (1976)

Mi modo neutroa: ...*mundurat eman ninduzun*...



Zuberoa

Junes Xübürü (Santa Grazi, Zuberoa): “Txorittua nuat hua” (2011)

Erdibideko **oso luzea**: *Txorittua nuat hua bi hegalez aidian...*



Junes Xübürü (Santa Grazi, Zuberoa): “Bazterretik bazterriala” (1967)

Oso luzea; apainduran barnean: ... *hortzetan **dizüt irria eta**
bi **begietan** nigarra.*



Junes Xübürü (Santa Grazi, Zuberoa): “Txori erresinula” (1972)

... *zeren ordian beitü **kanpuan janari**
negian ez **da** ageri...*



Junes Xübürü (Santa Grazi, Zuberoa): “Gaztetarzünak” (2010)

... *baizik eta zure ikustez ene bihotza tristetzen...*



Pierre Caubet (Lakarri, Zuberoa): “Haur abandonatua” (1978)

... *aita **ama** maiteak zien bientako.*



Pette Etxekopar Lezarte (Larraine, Zuberoa): “Ai ardua” (1973)

Etenarekin: ... *bai eta biharamenian lanialako gogua.*



Zuberoa

Jean Mixel Bedaxagar (Urdiñarbe, Zuberoa): “Oihaneko zühaiñetan” (1983)

Apaindurarekin: ...*eder zuhañik gorena...*

*Leheneko üskaldünari
fama zaio baratü...*

...*fidelitatuan etxeki...*



Jean Mixel Bedaxagar (Urdiñarbe, Zuberoa): “Urzo bat jin izan da Katalunia aldetik” (2015)

Apaindura + Etenarekin: *Ürzüa nurat hua hegalez aidian*

Apaindura + Etenarekin: *jakin gabe pausia non hartüren dian*

(2x) ...*tralala...*



Jean Mixel Bedaxagar (Urdiñarbe, Zuberoa): “Gaztetarzünak” (2015)

...*kantatzen alagerarik, oi maitia galdüagatik.*



Beñat Aranburu *Arantxet* (Altzai, Zuberoa): “Txorietan bürüzagi” (2011)

...*kantatzen dizü ejerki...*



Junes Xübürü (Santa Grazi, Zuberoa): “Agur adixkidia” (1972)



Zuberoa

Pette Etxekopar *Lezarte* (Larraine, Zuberoa): “Ahaire zahar huntan” (1972)



Johañe Barcos (Altzai, Zuberoa): “Ahaide zahar huntan” (Sü-Azia, 15BED-07)



Petti Keheille *Phoi* (Zihiga, Zuberoa): “Belatxa” (1950-60)

(antologikoa) Basahaidea, “tralalaikaz” (zattia)



Pierre Caubet (Lakarri, Zuberoa): “Belatxa” (MuCEM, 102ATP-06, 1947)



Pierra Oihenart *Tzapelo* (Santa Grazi, Zuberoa): “Oraiko neskatilek” (1972)



Pette Etxekopar *Lezarte* (Larraine, Zuberoa): “Txorittua nurat hua” (1972)

(harrigarria!)



Etxahun-Liginaga (Liginaga, Zuberoa): “Txorittua nuat hua” (MuCEM, 102ATP-23, 1947)



Johañe Barcos (Altzai, Zuberoa): “Argi azkorrian jinik (Agota)” (Sü-Azia, 93RFR)

Ornamentazioa (apaindurak)



Etxahun-Liginaga (Liginaga, Zuberoa): “Atarratze jauregian” (MuCEM, 102ATP-05, 1947)



“tenperatu” xamarra

Zuberoa

Jean Ager *Txakosti* (Zuberoa): “Berterretxen kantoria” (Sü-Azia, Urruty funtsa, 1970)



Bidegain (Zuberoa): “Aldixe batez (Egüntto batez)” (Sü-Azia, 51HAR-17)



Modalki ere interesgarria

(konparatzeko) Pierra Erramuzpe (Aldude, Baxenabarre): “Goazen lagun” (2014)



Jean-Pierra Epherre *Etxeber* (Altzürükü, Zuberoa): “Gaztetarzünak” (Sü-Azia, 23BED-08)



Modalki interesgarria

Etxahun-Liginaga (Liginaga, Zuberoa): “Gure etxen badira” (MuCEM, 102ATP-25, 1947)



Loustalot (Zuberoa): “Mutil gazte (Urrutiako jauna)” (Sü-Azia, 93RFR)



Beñat Aranburu *Arantxet* (Altzai, Zuberoa): “Ürrüntik jiten nüzü (Urrutiako jauna)”
(Sü-Azia, 8BED-05)



Epherre anaiak (xantreak) (Altzürükü, Zuberoa): Meza - “Loria gitean” (Sü-Azia, 7EPH-14)



Xantreek eta kantoreek mezetan ere bai. Xantreen jarduna aztertu behar litzateke

Intonazio neutro edo erdibidekoa

2. Nola eta zergatik sortzen da horrela?

2. Nola eta zergatik sortzen da horrela?

Gaur egun intonazio erdibidekoa erabiltzen duten kantore batzuei galdetu nien, 2010-2014 bitartean. **Irratia sartu baino lehenago** (1954 inguruan) **jaioak**.

Kantarazi egin nien eta kantatuari buruz elkarrizketa egin genuen.

1. Pierra Erramuzpe (Aldude, BN, 1927 -). Morroi, artzain, gutunketari...



“Amodiuak bainerabila” (2014)

1. ...

2. Beñat Aranburu, *Arhantxet* (Altzai, Zuberoa, 1934 -). Marinel, artzain, laborari...



“Txorietan bürüzagi” (2011)

1. ...
2. ...
3. Erramun Negelua (Gamarte, BN, 1935 -). Laborari, artzain, artisau eta kantari



“Lapurdi eta Baxenabarre...” (J. Mendiage)
(2010)

1. ...
2. ...
3. ...
4. Junes Xübürü (Santa Engrazi, Zuberoa, 1936 -). Artzain eta “tratulanta”.



“Gaztelondo handian” (Pierre Topet *Etxahun*)
(2011)

Elkarrizketen ondorioak (1)

1. **Ez dira kontziente** egiten dituzten erdibideko bitarteez.
2. **Gu** galderan **asko tematuz gero**, ohartzeko gai izan daitezke (batzuetan bakarrik).
3. Argi ikusten da eurentzat **ez dela inportantea**, ez da kulturalki pertinentea, bereizgarria.
4. Ez da belarri txar kontua (adibidez, kantari askok tonuari bikain eusten diote eta gainerako nota guztiak beren lekuan daude). Juzku hori gure kultura musikal eskolatuaren kategoria kognitibo bat besterik ez da: aurreiritzi bat.

Elkarrizketen ondorioak (2)

5. Zein dira parametro **kulturalki bereizgarriak**, haien kantuan?
 - a. Kantaren **istorioaren esanahia** → kopia guztiak kantatu beharra.
 - b. Musikalki, melodiaren **marraskia** edo **ingerada**, bitartean handiera zehatzean erreparatu gabe.
 - c. Musikalki, doinu bakoitzak izan litzakeen **esanahi konnotatiboak**.

6. Kantaera honen **esanahi kultural** eta **balio konnotatiboa**:
 - a. Istorio multzo baten bidez **bizitzaren ikuspegi bat** transmititzen da.
 - b. Garrantzia handia **norberaren esperientziak** eta bizitzaren gogortasuna azaltzeak (Xübürüren “zentsü borogatia”)
 - c. Giza-taldearen **talde-lotura** indartzen du.
 - d. Funtsezkoa sortzen duen **plazera** eta satisfazio pertsonala.

Intonazio neutro edo erdibidekoa

3. Fenomeno honen interpretazioa

3. Fenomeno honen interpretazioa

1. Intonazio neutroak badu egitura bat: ez da “desafinazio” kaotiko bat.
2. Oso bitarte neutro nabari eta ugariak antzematen ditugu: ezinezkoa da kasualitate hutsa izatea.
3. Beraz, sumatzen dugu kantariak “**badakitela**” intonazio neutroaz kantatzen.
4. Aitzitik, **ez da hautu erabat kontzientea**.
5. Nola izan daiteke hau?
 - a. Alderdi poietikotik (musikaren sortzea)
 - i. Bartók → intonazio neutroa “**oharkabean berariaz**” sortzen dute
 1. “Berariaz”: bitarte neutroak haien “hiztegian” daude. Aldaera modalak ere bai.
 2. “Oharkabean”: ahozko tradiziozko kultura musikal batean murgilduta egotearen ondorioz ustekabean ikasiak (Shumays, Diana Deutsch), hots, “ikasketa inplizituz”.
 - ii. Hau da: ahozko kultura → ez dago teorizazio musikal espliziturik →ez dira kontziente. Baina haien “hiztegian” dago.

3. Fenomeno honen interpretazioa

b. Alderdi estesikotik (musika nola jasotzen den)

- i. “**Abstrakzio notala**” → bitartean zehaztasunaren pertzepzioa fenomeno kulturala da (Robert Francès).
- ii. Pertzepzioa, **sintetikoa** da: ingerada melodikoa pertzibitzeko joera, bitarte xeheen gaisetik (Sandra Trehub).

Laburpen gisa:

Oharkabeen, kantari hauek **pasarte osoaren kolore orokor bat** bilatzen dute, haien “hiztegian” dauden gauzekin: bitarte neutroak, aldaera modalak... baina **ez notaz-nota** pentsatuz eta erabakiz.

Intonazio neutro edo erdibidekoa

4. Bere jatorria eta bilakaera historikoa

1. Jatorria (zenbait hipotesi)

- a. **Haizezko musika-tresna** “ez tenperatuen” eragina (Marie Hirigoyenek). Xirula edota flauten akustika kontuan hartuta. Oso gogoan hartu beharrekoa.
- b. **Arrazoi akustikoa**: tenperamentu mesotonikoak. Marie Hirigoyenek azaldua.
- c. **Zalantza gregorianoa** (Gallop - Lerchundi - Arana Martija): kantariaren zalantza, eliza-moduen eta tonalitate modernoaren artean.
- d. **Ertaroko jatorria**
 - i. IX.-XIII.: gregorianoan mikrotonoak?
 - ii. Trento eta gero (XVI. mendea) beste liturgia eta kantu moldea (polifonikoa) bultzatu zen, baina Europako toki batzuetako eliz-musikan Ertaroko ezaugarri batzuk gorde dira, intonazio neutroa barne (XX. mendean: **Korsika, Andavías** (Zamora, Espainia)).

2. Erdibideko intonazioa erbiltzen duten beste hainbat kantari

- Beste zenbait, Iparraldean (nahiz guztiek ez sistematikoki): Maddi Oihenart, Erramun Martikorena (Otsobi diskoan), Beñat Axiary, Mixel Etxekopar, Matieu Mendizabal (Askain), Julen Achiary...
- Hegoaldean:
 - Hainbat bertsolari: Balendin Enbeita, Paulo Txikia, Uztapide, Basarri, Lexoti, Mitxelena, Anjel Larrañaga, Azpillaga, Jose Luis Gorrotxategi...
 - Zenbait alboka-koplari: Gillermo Etxebarria, Maurizia Aldeiturriaga eta Arantza Goikoetxea.
 - Bertsozale eta kantazale herrikoiak: Anjel Aintziburu, eta jendeari ezezagunak zaizkion beste anitz.

Intonazio neutro edo erdibidekoa

5. Gaurko hitzaldirako erabilitako iturri musikalak

1. Disko komentzialak:

- “Kantuz, n°1” (ca. 196?, Musée Basque. Club du Disque Basque, XPART. 39.901)
- “Orhiko khantariak” (1967, Agorila, AG 30-08 eta 1972, Agorila, AG 7.11)
- “Herrikoi musika sorta-4, Zuberoa-1” (1972, Edigsa, HG-29L)
- “Herrikoi musika sorta-6, Zuberoa-2” (1972, Edigsa, HG-37L)
- “Agour, Chiberoua” (1973, Agorila, AG 70.16)
- “Xalbador” (1974, Edigsa, HG-100L)
- “Xalbador. Ifarraldeko kantu zaharrak” (1976, Edigsa, HG-157K eta HG-158K)
- “Xalbador. Herria eta hizkuntza” (1977, Elkar, ELK-26)
- “Mattin. Ifarraldeko kantu zaharrak” (1977, Edigsa, HG-164)
- “Txanbela bezala ari da khantatzen” (1978, yPartx, HM 02)
- “Euskadiko bertsolari txapelketa. 1982. Idiazabal” (1982, IZ, IZ-171-K)
- “Xiberoa” (1983, Elkar, KD-56)
- “Xiberoko kantüak” (2003, Elkar, KD-638)
- “Kanta zahar bilduma 1999-2009” (Oxtikenekoak. Mattin-Elkarlanean musika)
- “Belatxa” (2015, Elkar, KD-935)

2. Sü-Azia Elkartearen funtsa.

3. MuCEMen funtsa (Musée des Civilisations de l’Europe et de la Méditerranée).

4. Euskal Kultur Erakundearen www.mintzoak.eus webgunea.

5. Neronek egindako grabaketak.

Eskerrik beroenak lan honetan lagundu didazuenei, batez ere ene lau berriemailei.

Eta gaurko honetan, bereziki Euskal Kultur Erakundeari Etnopolora gonbidatzeagatik.